



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

COVID-19ARI AURRE EGINEZ ETA ETORKIZUNA ERAIKIZ BERDINTASUNETIK GOMENDIOAK ETA EUSKO JAURLARITZAK HARTUTAKO NEURRIAK

COVID-19aren krisiak nabarmen aldatu ditu agenda eta lehentasun politiko eta sozialak, eta politika publiko guztiak birbideratu behar dira lehentasun horiei erantzuteko. Ildo horretan, ezinbestekoa da genero-ikuspegia kontuan hartzea, epe labur, ertain eta luzean hartzen diren neurriak, bai emakumeentzat, bai gizonentzat, ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen eta inor atzean utz ez dadin, Garapen Jasangarrirako Euskadi Basque Country 2030 Agendan jasotako konpromisoari jarraituz.

Ildo horretan, Nazio Batuek adierazi dute emakumeen beharrei erantzuteak indartu egingo duela COVID-19aren aurreko erantzuna. Era berean, nazioarteko eta Europako erakunde nagusiek eta hainbat herrialdek pandemiari emandako erantzunean genero-ikuspegia txertatu beharra adierazi dute, eta horren inguruko gomendioak argitaratu dituzte. Krisialdi multidimentsional honi aurre egitean emakumeen eta gizonen hasierako egoerak eta beharrak kontuan hartzea efikazia, justizia soziala eta betebeharrak publikoak dela sinetsita, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak honako gomendio hauek egin ditu, COVID-19ari aurre egiteko eta etorkizun berdinzaleagoa eraikitzeko.

Jarraian, gomendio horiek jasotzen dira, bai eta Eusko Jaurlaritzak martxoan eta apirilean hartutako neurriak ere, horiekin lotura dutenak, eta Eusko Jaurlaritzak maiatzetan eta ekainean deseskalatze-fasean gauzaturakoak edo gauzatzea aurreikusitakoak.

EMAKUNDEREN GOMENDIOAK	JUSTIFIKAZIOA	EUSKO JAURLARITZAREN NEURRIAK EUSTE-FASEA (martxoa-apirila)	EUSKO JAURLARITZAREN NEURRIAK DEESKALATZE-FASEA (maiatza-ekaina)
<p>1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuetarako, arreta-baliabideen funtzionamendua eta biktima guztientzako sarbidea bermatzea, kontuan hartuta haien aniztasuna.</p>	<p>Konfinamenduak areagotu egin du beren etxeetan indarkeria jasaten duten emakumeen arriskua, eta zaildu egiten du laguntza eskatzea. Horregatik, funtsezkoa da biktimei laguntzeko zerbitzuak martxan daudela eta eskuragarriak direla bermatzea, eta, horretarako, behar diren errefortzuak eta egokitzapenak egitea. Halaber, garrantzitsua da indarkeria erabiltzen duten edo erabili duten gizonentzako zerbitzuek funtzionatzen jarraitzea eraso berriak prebenitzeko, bereziki, bikotekidearekin bizitzen jarraitzen duten kasuetan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea (aurrerantzean, Erakundeen arteko II. Akordioa) eta haren Erakunde arteko Talde Teknikoa aktibatu dira. Astero jarraipen-txandak egin dira gaur arte. - SATEVI indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko 24 orduko zerbitzu espezializatua berregituratu da, zerbitzuari erantzuteko neurri egokiak hartuz (tehelana, on line bilerak...) - SATEVIren publizitate-kanpainak areagotu egin dira hiru fasetan, hiru une desberdinetan, irratien, prentsa idatziaren eta ETBn mikroespazioen bidez. - Malgutu egin da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako "ordainketa bakarrek" laguntza ekonomikoak eskuratzeko aukera, administrazio-epeak eteteak eta sarrera-erregistro fisikoek ez funtzionatzeak eraginik izan ez dezaten. - Segurtasun-dispositibo guztiak martxan daude. 112 larrialdietarako telefonoa martxan dago eta telefono- 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraitzen da Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea gidatzen, eskuragarri dauden datuen jarraipena egiteko, behar berriak detektatzeko eta deseskalatze-fasean erantzuna erakundeen artean koordinatzen jarraituko dela bermatzeko, COVID-19ak eragindako krisiaren aurrean. - Zerbitzuak martxan mantentzen dira, eta aldian-aldian eguneratzen da Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek dituzten baliabideei buruzko informazioa, bai eta udalerrietako Baliabideen Mapari buruzkoa ere. - Indartu egin da kirol-arloan sexu-jazarpenera eta -abusua artatzeko eta prebenitzeko "Zure taldekoak gara" zerbitzua.

deiaaren alternatiba gisa erabil daitezkeen tresnak eskuragarri daude, geolokalizazioarekin:

- Espediente irekiak dituzten biktimek eskura duten *Bortxa* app-ak abisuak eta interkomunikazio isila ahalbidetzen ditu, komunikatzailea geolokalizatzea eta identifikatzea erraztuz.
 - Espedienterik irekita ez duten pertsonen kasuan, larrialdietako 112 aplikazioa dago eskuragarri, genero-indarkeriako kasuetarako pertsonalizatzeko moduan, txata barne, eta horrek komunikazio diskretua, ez telefonikoa, eta geolokalizazioa ahalbidetzen ditu.
- Arrisku-kasuen banakako jarraipena egiten ari da. Kontrazaintza areagotu egin da, eta 48 orduz behin jartzen da harremanetan biktima diren emakumeekin, nola dauden jakiteko.
 - Saisetako zerbitzu guztiak funtzionatzen ari dira (indarkeria erabiltzen duten gizonentzako zerbitzuak barne), larrialdi-egoerak eskatzen dituen egokitzapenekin.
 - Eusko Jaurlaritzako sailek eta foru-aldundiek eskura dituzten baliabideen berri eman da, eta udalerrietan eskuragarri dauden baliabideen mapa bat egin da, aldi-aldian eguneratzen dena.
 - Herritarrei informazioa emateko kanpainak eta beste ekintza batzuk indartu dira biktimei zerbitzuak eskuratzen laguntzeko, arreta-telefonoak sei hizkuntzatan zabaltzea barne.

		<ul style="list-style-type: none"> - Bilerak egin dira indarkeriaren biktima diren emakumeen elkarteekin, testuinguru horretan zer behar espezifiko dituzten jakiteko. - Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetan esku hartzen duten profesionalentzako online prestakuntzan COVID-19arekin lotutako alderdiak sartu dira. - “Zure taldekoak gara” zerbitzua aktibo mantendu da, kirol arloan sexu-jazarpena eta abusua eta sexuagatiko jazarpena artatzeko eta prebenitzeko zerbitzua. 	
<p>2. Baliabideak eskuratzea bermatzea, generoagatiko bereizkeria-kasuetarako.</p>	<p>Krisialdian eta enpleguaren suntsipen masiboaren testuinguruan, botere publikoek zaindu behar dute generoagatik zuzeneko eta zeharkako diskriminaziorik ez gertatzea. Beraz, kasu horietarako arretaz-zerbitzuak martxan daudela eta eskuragarriak direla bermatu behar da, horretarako beharrezko egokitzapenak eginez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun-printzipioa eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioa defendatzeko Emakunderen zerbitzua funtzionatzen ari da, larrialdi-egoerak eskatzen dituen egokitzapenekin. - Lan Ikuskaritza lanean ari da, larrialdi-egoerak eskatzen dituen egokitzapenekin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketan ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.
<p>3. Lehen lerroan lan egiten duten eta birusarekiko esposizio handiagoa duten langile soziosanitario guztien segurtasuna bermatzea eta horien beharrei erantzutea, kontuan hartuta eremu horretan gehiengoa diren emakumeen (medikuak, erizainak, laguntzaileak, zaintzaileak) behar</p>	<p>Lehentasunezkoa da COVID-19aren aurrean lehen lerroan dauden pertsonen, batez ere emakumeen, beharrak babestea eta artatzea; haiek modu intentsiboan eta presiopean lan egin eta haien bizitzak arriskuan jartzen dute, pertsona guztien onerako.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Langile horiei lehentasuna eman zaie babes-ekipoak lortzeari begira. - Ostalaritza-establezimenduak beren eskura jarri dira, beren etxeetara itzuli beharrik gabe atsedean har dezaten. - Autobus-garraio berezia eskaini da, profesionalak lantokietara garraio publikorik gabe eramateko. - Osalan-Laneko Segurtasun eta 	<ul style="list-style-type: none"> - Osalanek prebentzio-gomendioak egiten jarraitzen du, bai eta horiek eguneratzen ere, ebidentzian oinarrituta. - Aipatutako sektoreetan jarraitzen dute proben emaitzak detektatzeko eta horien jarraipena egiteko lana egiten. - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko

<p>espezifikoak.</p>		<p>Osasunerako Euskal Erakundeak webgune bat garatu du, non, besteak beste, lanbide-jarduera ezberdinetarako prestatutako dokumentu teknikoak eta prebentzio-kudeaketarako gomendioak biltzen baitira. Zehazki, esparru soziosanitarioari dagokionez, gomendioak egin dira adinekoen egoitzetarako, farmazietarako, barneratzerik gabeko osasun-laguntzarako, etxez etxeko laguntzarako eta feminizazio-maila handia duten jardueretarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Era berean, egoitzetan eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan norbera babesteko ekipamenduen beharrak hautemateko lan bat egin da, bai eta sektore horietako profesionalei egindako proben emaitzen jarraipena ere. 	<p>Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.</p>
<p>4. Langile guztien segurtasuna eta osasuna bermatzea, emakumeen eta gizonen premia desberdinak kontuan hartuta, eta, batez ere, lehen lerroan lan egiten duten eta birusarekiko esposizio handiagoa duten funtsezko beste zerbitzu batzuetako langileenak, bereziki emakumeak gehiengoa diren sektoreetan (farmazialariak, kutxazainak, garbiketako langileak...).</p>	<p>Oro har, langile guztien segurtasuna eta osasuna bermatu behar dira, emakumeen eta gizonen premia desberdinak kontuan hartuta. Kontuan izan behar da emakumeek enpresa txikietan eta babes sindikal txikiagoa duten sektoreetan lan egiten dutela, eta horrek zaildu egin dezake segurtasun- eta babes-neurriak hartzea. Bestalde, aurreko gomendioan aipatutako langile soziosanitarioez gain, badira</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Babes-ekipoak eman zaizkie eta jarduera-protokoloak hartu dira sektore horietarako. - Administrazioako eraikinetan lan egiten duten enpresei hainbat komunikazio bidali zaizkie, garbiketa- eta babes-protokoloari jarrai diezaioten. - Aurrez aurreko zuzeneko arreta eten egin da, herritarrei arreta emateko Zuzenean zerbitzua itxiz, lanpostu horiek betetzen dituzten pertsonen segurtasuna bermatzeko; % 74 emakumeak dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - COVID aurrekontu-programaren barruan aurrekontu-partidak gaitu dira kontsumorako eta birjartzeko material sanitarioa erosteko. - Zuzenean zerbitzuan neurriak hartzen ari dira, aldi berean langileen 1/3 soilik sartzeko, segurtasun-distantziari eusteko, eta lan-eremuak egokitu dira egiturazko neurrien bidez, hala nola manparak, lanpostuen arteko bereizgailuak, ilarak antolatzekeo neurriak, etab. - BakQ kanpaina abiarazi da,

beste pertsona batzuk funtsezko zerbitzuak ematen ari direnak publikoari begira, horietako asko emakumeak eta gutxi baloratutako eta ordaindutako enpleguak dituztenak, hala nola supermerkatuetako kutzazainak eta funtsezko azpiegituretako garbiketako langileak. Emakumeak ere modu intentsiboan eta lehen lerroan ari dira lanean, eta babestu eta artatu egin behar dira.

- Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako espazio fisikoetako lanpostuetara itzultzeko planaren barruan, genero-ikuspegia kontuan hartu da pertsona kalteberak baloratzean, hala nola haurdun dauden emakumeak, lantokira itzultzeko betebeharririk ez dutenak.
- EGaren garraio publikorako jarduerak koordinatzeko mahaiak COVID-19aren aurrean zenbait neurri zehatz hartu ditu garraio publikoko langile eta erabiltzaileentzat:
 - Langileei zuzendutako informazio-, prestakuntza- eta prebentzio-neurriak.
 - Autobus, metro, tranbia, trena eta taxi gidariak babestea.
 - Desinfekzioa instalazioetan, kontaktu intentsiboko eremuetan eta garraio-unitateetan.
 - Zerbitzuen eskaintza berrantolatzea.
 - Garraio-moduetarako sarbidea erdiko eta atzeko ateetatik.
 - Txartelarekin ordaintzea, eskudiruzko ordainketa baliogabetuz.
 - MUPentzako sarbide-lehentasuna
 - Gidari-postuaren ondorengo lerroak deuseztatzea.
 - Informazio-neurriak eta maskara banaketa erabiltzaileen eta profesionalen artean.
- Osalaneke prebentzio-gomendioak egin eta argitaratu ditu, besteak beste, garbitasunarekin, saltoki txikiekin, garbitegiekin eta etxeke langileekin lotutako jardueretarako, eta ile-apaindegietan jarduera abiarazteko jarraibideak jasotzen

- izapidetze elektronikoen erabilera zabalteko.
- Prozedura guztien izapidetze elektronikoa bizkortzen da.
 - EGaren garraio publikorako jarduerak koordinatzeko mahaiak COVID-19aren aurrean zenbait neurri gehigarri hartu ditu garraio publikoko langile eta erabiltzaileentzat:
 - Zerbitzuen eskaintza handitzea
 - Nahitaezko maskara erabiltzea.
 - Tenperaturaren ausazko kontrolak geltokietan.
 - Geltokietan eta intermodaletan gel higienizatzailea banaketa eta eskuratzea
 - Herritarrak sentsibilizatzeko eta informatzeko kanpaina.
 - Osalaneke prebentzio-gomendioak egiten jarraitzen du, bai eta horiek eguneratzen ere, ebidentzian oinarrituta. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.

		dituen gida bat ere egin da. Jarduera horiek guztiak feminizazio-maila handikoak dira.	
<p>5. COVID-19aren aurrean ahulenak izaten ari diren adineko pertsonen segurtasuna eta beren beharrezkoen ematen zaien erantzuna bermatzea, kontuan hartuta eremu horretan gehiengoa diren emakumeen beharrezkoak.</p>	<p>Adineko pertsonen arrisku handia dute, batez ere 80 urtetik gorakoek, gehienak emakumeak baitira (% 65). Konfinamendu-une hauetan, bakarrik bizi direnei eta familia-euskarririk ez dutenei behar duten laguntza eman behar zaie. Gainera, emakumeek pentsio txikiagoak dituzte oro har, eta funtsezkoa da beren erosteko ahalmenari eustea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Betion</i> Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoa indartu da, adinekoek, desgaitasuna edo gaixotasun mentala dutenei edo mendetasun-egoeran edo gizarte-arriskuko egoera jakin batzuetan daudenei zuzenduta; langileak ugaritu dira eta 900 linea bat ere gehitu da, dispositiboa instalatu bitartean ahalik eta azkarren arreta emateko. - Zerbitzua eskatzeko prozedura aldatu da, zerbitzua lehenbailehen jaso ahal izateko, eta dokumentuen aurkezpena malgutu da - <i>Guztion artean</i> kolektibo ahulen eta arrisku-kolektiboen eskaerei erantzuteko elkartasun-sare antolatua jarri da martxan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.
<p>6. Adineko pertsonen arrisku handia dute, batez ere 80 urtetik gorakoek, gehienak emakumeak baitira (% 65). Konfinamendu-une hauetan, bakarrik bizi direnei eta familia-euskarririk ez dutenei behar duten laguntza eman behar zaie. Gainera, emakumeek pentsio txikiagoak dituzte oro har, eta funtsezkoa da beren erosteko ahalmenari eustea.</p>	<p>Normaltasun baldintzetan ere, zenbait emakume-talde egoera bereziki ahulean daude, esaterako guraso bakarreko familien buru diren emakumeak, edo beste diskriminazio-faktore batzuk dituzten emakumeak, hala nola desgaitasuna izatea edo dokumentu-egoera irregularrean egotea. Oso litekeena da alarma-egoeran ezarritako baldintzek haien egoera larriagotu izana, eta beharrezkoa da behar duten laguntza ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egiteko laguntzetan, bereziki egoera ahulenean dauden kolektiboek laguntzeko helburuarekin, laguntzen zenbateko ekonomikoa % 30 handitu da, honako kasuetan: guraso bakarreko familiak, familia ugariak, mendekotasun larriaren edo mendekotasun handian dagoen edota % 50etik gorako desgaitasuna duen kideren bat duten familia-unitateak eta genero-indarkeriaren biktima den kideren bat duten familia-unitateak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntzako emakumeen elkarrean eskura jartzen da, prestakuntza eta jarduera birtualak eta online egiteko eta koordinatzeko tresna teknologikoen erabilerari buruz. - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak

		<ul style="list-style-type: none"> - 100.000 euroko zuzkidura eman zaio Euskadiko Gurutze Gorriari, eta 35.000 Caritasi, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako <i>Guztion artean</i> saretik artatzen diren pertsonen oinarrizko premiako artikuluak hornitzen jarrai dezaten. - <i>Betion</i> Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoa indartu da, adinekoei, desgaitasuna edo gaixotasun mentala dutenei edo mendekotasun-egoeran edo gizarte-arriskuko egoera jakin batzuetan daudenei zuzendua. - EDEKArekin lan egin da (desgaitasunaren arloan lan egiten duten euskal erakundeak biltzen dituen euskal koordinakundea), desgaitasunen bat duten eta konfinamendu-aldian indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeengana ahalik eta modurik eraginkorrean iritsi ahal izateko. 	<p>saihesteko eta positiboak indartzeko.</p>
<p>7. Krisiak bereziki eragin dien emakumeen presentzia handia duten sektore ekonomikoetarako neurriak hartzea, hala nola turismoa, ostalaritza, hurbileko merkataritza, kultura, familiaren etxeko enplegua eta abar.</p>	<p>COVID-19aren krisiaren oldarraldi handiena jasaten ari diren sektoreei lagundu behar zaie; horietako askotan emakumeak dira nagusi.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Berariazko prebentzio-protokoloak onartu dira, COVID-19ak turismoaren eta merkataritzaren sektoreetan dituen ondorioak minimizatzen. - Turismoaren sektorerako 2,8 milioi euroko laguntzak onartu dira. - Adierazpen publikoak egin dira gogorarazteko une honetan ere gomendagarria dela hurbileko merkataritzaren alde egitea, jasangarriagoa baita. - Osasun krisia amaitu ondoren, 	<ul style="list-style-type: none"> - Turismoko azpisektoreetarako eta merkataritzarako higie-ne eta osasun-gomendioak jasotzen dituzten gidak onartu dira. - Maiatzean EHAAn argitaratu dira turismo-sektorerako laguntza-programak (TMS, LPT eta ETELH programak). - Euskal merkataritza- eta turismo-sektoreei balioa emateko sustapen-kanpainak abiarazi dira - COVID-19 laguntza berezia abiarazi

		<p>turismoaren, merkataritzaren eta ostalaritzaren jarduera suspertzeko sustapen-kanpainak eta kontsumorako bonuak egitea aurreikusten da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kulturako profesionalentzako 2,5 milioi euroko laguntzak onartu dira, haien jarduerak bertan behera geratu baitira alarma egoeraren adierazpenaren ondorioz. Oro har, laguntzaren hileko zenbatekoa 2019ko diru-sarrera garbien hileko batez bestekoaren % 70 izango da, 1.200 euroko mugarekin. - Kulturako profesionalentzako 2,5 milioi euroko laguntzak onartu dira, haien jarduerak bertan behera geratu baitira alarma egoeraren adierazpenaren ondorioz. Oro har, laguntzaren hileko zenbatekoa 2019ko diru-sarrera garbien hileko batez bestekoaren % 70 izango da, 1.200 euroko mugarekin. 	<p>da merkataritza- eta turismo-sektoreentzat, 15 milioi eurokoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontsumorako pizgarrien eta bonuen programa planifikatu da, turismo-, merkataritza- eta ostalaritza-jarduera sustatzeko. - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.
<p>8. COVID-19aren krisiaren oldarra handiena jasaten ari diren sektoreei lagundu behar zaie; horietako askotan emakumeak dira nagusi.</p>	<p>Emakumeek, oro har, gutxiago eta baldintza okerragoetan parte hartzen dute lan-merkatuan. Soldata-arrakala horren froga da. COVID-19aren ondorioz planteatzen diren neurri ekonomikoek, fiskalek eta enplegua sustatzekoek desberdintasun horiek arindu behar dituzte, eta ez areagotu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomoentzako eta ETEentzako zuzeneko maileguetarako 25 milioi euroko lehen finantzaketa-lerro bat aktibatu da, % 0ko interesarekin, Finantzen Euskal Institutuaren bidez (FEI). - Autonomoen eta ETEen egitura-gastu finkoak estaltzeko 500 milioi euroko bigarren finantzaketa-lerro bat aktibatu da,% 0ko interesarekin, Elkargiren bidez. - Langabezia-prestazioa kobratzeko 	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomoen eta ETEen egitura-gastu finkoak estaltzeko finantzaketa-lerroa beste 500 milioi euroan handitu da, % 0ko interesarekin, Elkargiren bidez. - Euskadin enplegua sortzeko 140 milioiko laguntzak onartu dira lau programa hauen bitartez: <ul style="list-style-type: none"> • Udalek enplegua sustatze aldera tokiko planak abian jartzeko programa. • Langabezian dauden pertsonak prestatzeko programa.

baimena eman zaie COVID-19aren ondoriozko osasun-alarmako egoeraren ondorioz ABEEE batek edo EEE batek eragindako pertsoneri, ekarpen definituko planak dituzten eta langabezia-prestazioa aitortuta duten BGA Eetan, nahiz eta ABEEE edo EEE egoera ez egon aitortuta beren estatutuetan edo erregelamenduetan.

- Gainera, enpresa txiki eta ertainentzako neurriak ezarri dira, bi jarduera-ildotan, guztiak ere oso premiazkoak: neurri-bloke bat, COVID-19 ezohiko funtsaren estaldurarekin, eta beste neurri-bloke bat, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailean eta SPRI Taldean dauden programen ezohiko kudeaketaren bidez, Euskadiko enpresa-sarea dagoen larrialdi-egoerarako egokiak. Guztira, 45.415.000 euro bideratuko dira, premiazko izaerarekin, honakoetarako: ETEetan teknologia eta telelana prestatzea errazteko; koronabirusa arintzen laguntzen duten produktuetan larrialdiko ikerketa egiteko; industriako eta elikaduraren sektoreko ETEei zeharkako finantzaketa emateko; COVID-19ak sortutako krisian dauden enpresak berregituratzeko eta berriz abiarazteko laguntza-lerro berri bat, eta elikagaien soberakinen

- Gazteei prestakuntza eta lana bultzatzeko "HEZIBI Programa"
 - Lanean ari diren pertsoneri prestakuntza emateko programa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.

		<p>kudeaketarako programa berri bat.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 16 milioi euroko laguntza-lerro bat sortu da autonomoentzat eta enpresaburu indibidualentzat, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta alokairu-errentak ordaintzeko, pertsonako 3.000 euroko gehieneko mugarekin. - Ohiz kanpoko neurriak proposatu dira Covid-19k enplegurako lanbide-heziketaren arloan duen eraginari aurre egiteko, jarduera bertan behera utziz eta teleprestakuntza erraztuz. - Aurrekontu-programa berri bat sortu da, "COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak" izenekoa, 300 milioi eurokoa, Eusko Jaurlaritzako sailei baliabideak transferitzea ahalbidetzen duena, sortzen diren beharrei erantzuteko. 	
<p>9. Planteatzen diren gizarte-babeseko neurriek emakumeei eta gizonei berdintasun-baldintzetan mesede egiten dietela bermatzea, kontuan hartuta pobrezia eta bazterkeriak neurri horietan eragin handiagoa dutela.</p>	<p>Emakumeek, oro har, gizonek baino diru-sarrera gutxiago dituzte, eta pobrezia eta bazterkeriak eragin handiagoa dute emakumeengan. COVID-19aren ondorioz planteatzen diren gizarte-babeserako neurriek desberdintasun horiek murriztu behar dituzte, eta ez handitu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 10 milioiko funts berri bat sortu da bazterkeria-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen eta haur-pobrezia arreta emateko. - Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eskuratzeko prozedura egokitu da. Apirilean kobrantza bost egun aurreratu zen. - Gizarte Larrialdietarako laguntzen aurrekontua 16 milioi euro handitu da. - Jantokiko beka bat jasotzeko eskubidea duten familiek dagokien zenbatekoa jaso ahal izatea erraztu 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketan ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.

da, COVID-19aren ondorioz ikastetxeetan eskola-jarduera presentziala aldi baterako etenda dagoen bitartean.

- Neurriak hartu dira unibertsitate-ekitatea errazteko eta COVID-19aren ondorio ekonomikoak pairatzen dituzten familiei laguntzeko, hala nola unibertsitate-tasa guztiak izoztea, unibertsitate-ikasketa guztietan behar den nota murriztea beka bat lortzeko, errendimendu akademikoaren kalkulua malgutzea bekari eutsi ahal izateko, edo familiek koefiziente zuzentzailea aplikatzea beren errenta-aitorpenean, COVID-19aren ondorio ekonomikoak badituzte.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntza horien berriazko hartzaileak dira, eta ez dute egiaztatu behar diru-sarreretan murrizketa izan dutenik COVID-19a dela-eta.
- *Aukerak Suspertzen* programa abian jartzen lagundu da, krisi honek familia ahulenen etorkizuneko aukeretan duen eragina murrizteko, ikasgelatik kanpoko hezkuntza-errefortzu komunitarioaren bidez.
- Laguntzak jarri dira abian zaurgarritasun-egoeran dauden biktimentzat (terrorismoaren eta motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen

		<p>urraketa larrien biktima aitortuentzat) eta Eusko Jaurlaritzak nazioarteko babes eskatzen dutenentzat irekitako aldi baterako harrera-zentroentzat. Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak onartutako ezohiko laguntzen pakete orokorrean sartu dira, COVID-19aren hedapen globalaren ondorioei aurre egiteko.</p>	
<p>10. Ekonomiaren sektore ez-formaletan lan egiten duten pertsonengan COVID-19ak sortutako ondorioak arintzeko neurriak hartzea, kontuan hartuta emakumeen behar espezifikoak, batez ere, gehiengoaren diren sektoreetan, hala nola etxeko langileen sektorean.</p>	<p>Gehienbat emakumeak dira sektore informalean lan egiten dutenak, eta horiek dira, ekonomietan, emakumeen lan-indarraren ehuneko handi bat. Krisi testuinguru horretan, egoera ahulagoan daude, eta zailtasun handiagoak dituzte COVID-19ari aurre egiteko ematen diren laguntza publikoak eskuratzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 10 milioiko funts berri bat sortu da bazterkeria-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen eta haur-pobreziari arreta emateko. - Gizarte-larrialdietarako laguntzen aurrekontua 16 milioi euro handitu da. - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agendaren laguntzarekin, <i>Mundu bat</i> GKEak doako aholkularitza-zerbitzu bat jarri du etxeko langileen eskura. - Berdintasunaren eta sexuagatiko diskriminaziorik ezaren printzipioa defendatzeko Emakunderen zerbitzua etxeko langileei aholkuak ematen ari zaizkie. 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, Sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.
<p>11. Hezkuntzarekin eta zaintzarekin lotutako zerbitzu publikoen (haur eskolak, ikastetxeak, premiazkoak ez diren zerbitzu soziosanitarioak) funtzionamendurik eza edo funtzionamendu mugatua konpentsatzeko neurriak antolatzea, kontzilio erantzukidea errazteko eta</p>	<p>COVID-19aren krisiaren ondorioz, zerbitzu publikoak emateari utzi zaio, hala nola hezkuntza-sektorearekin edo funtsezko edo premiazkoetat jotzen ez diren esparru soziosanitarioko zerbitzuekin lotutakoak. Hezkuntza- eta laguntza-lan eskerga hori familiek hartu dute beren gain, eta, ustez,</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ezohiko neurriei erantzuteko, 15.000.000 euroko kreditu ekonomikoa esleitu da bizitza pertsonala, familiakoa eta profesionala bateragarri egiteko laguntzak malgutzeko eta hedatzeko, eta laguntzaren denbora-mugak handitzen jarraitu da eskatzailea gizona denean, erantzukidetasuna bultzatzeko. Alde batetik, 16 astera 	<ul style="list-style-type: none"> - Trantsizio-prozesuaren 2. fasetik aurrera, Batxilergoko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako, Lanbide Heziketako eta Unitate Terapeutikoetako eta Hezkuntza Bereziko Zentroetako ikasleak aurrez aurreko jarduerara itzuliko dira, era mailakatuan. - Trantsizio-prozesuaren 3. fasetik

familien zaintza-lanaren gainkarga arintzeko, batez ere emakumeek egiten baitute lan hori.

emakumeek. Funtsezkoa da lan-gainkarga hori arintzeko neurriak ezartzea (telelana, etxeko eta zaintzako lanak, etxetik ikasten laguntzea) eta egoera horrek emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak areagotzea saihestea.

arteko aitatasun- eta amatasun-baimenak parekatzeko programa malgutu egin da, eta, beraz, gurasokideari (eskatzailea ez denari) ez zaio eskatzen Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea, enpresarekiko lan-harremana eten egin egungo ziurgabetasun-egoeraren ondorioz.

- Bestalde, laguntza berriak eman dira adingabeak eta/edo mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziarako edo lanaldi-murrizketarako, hezkuntza-zentroak eta arreta-zentroak ixteagatik, bai eta COVID-19ak kutsatutako edo bakartutako pertsonen senideentzat ere.
- Era berean, malgutu egin da laguntza horiek emateko gutxieneko epea, orain arte 59 egunekoa zena eta laburragoa izan daitekeena, betiere datak bat badatoz zentroen itxierarekin edo diagnostikatutako pertsonen bakartuta egon behar duten denborarekin.
- Bikoiztu egin dira laguntzen zenbatekoak.
- Adingabeak zaintzeko eszedentziarako eta lanaldi-murrizketarako laguntzen adina 14 urtera arte luzatu da.
- Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako langileen kontziliazioa eta erantzukidetasuna erraztu da. Zehazki: ekainaren 19ra

aurrera:

- 0-3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegiak eta haur-eskolak ireki ahal izango dira, edukiera ohiko gehieneko edukieraren edo ratioaren % 60ra mugatuta.
 - Haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdiko jardueri berrekin ahal izango zaie, erakunde eskudunek ezartzen duten erregulazioaren arabera, edukiera-mugekin: a) Aire zabalean, jardueraren ohiko gehieneko gaitasunaren % 60ra mugatuko da parte-hartzaileen kopurua, eta gehienez 200 parte-hartzaile izango dira, monitoreak barne. b) Espazio itxietan egiten direnean, jardueraren ohiko gehieneko gaitasunaren % 60ra mugatuko da parte-hartzaileen kopurua, eta gehienez 80 parte-hartzaile izango dira, begiraleak barne.
 - Aurrez aurreko hezkuntza- eta prestakuntza-jarduerari berrekingo zaio Ibaiondo adingabeen Barneratze Zentroan eta Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko-Hezigarrirako Lurralde Zentroetan.
- Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako langileen kontziliazioa eta erantzukidetasuna errazteko neurriak luzatu dira. Zehazki: lantokietan 7:30etan sartzeko aukera (irailaren 7ra arte); 14 urtetik beherako adingabeak izateagatik eta menpekotasunen bat duten adinekoak zaintzeagatik nahitaezko betebeharragatik

		<p>arte 14 urtetik beherako adingabeak izateagatik, ikastetxea ixteagatik eta menpekotasunen bat duten adinekoak zaintzeagatik, nahitaezko betebeharragatik baimena eskuratzeko aukera eman zaie, eta 2019an telelana egiten ari zirenentzat aurrez aurrekoa ez den lan-denbora luzatu da. Horren ondorioz, martxoan eta apirilean 6.000 pertsona inguru aritu dira aurrez aurrekoak ez diren lanak egiten. Halaber, espazio fisikoetako lanpostuetara itzultzeko planaren barruan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da pertsona kalteberak baloratzean, hala nola itzuli behar ez duten emakume haurdunak.</p>	<p>baimena (irailaren 7ra arte); eta 2019an telelana egiten ari zirenentzat aurrez aurrekoa ez den lan-denbora luzatzea (hurrengo deialdira arte).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.
<p>12. Etxeetan konfinamendua aprobetxatzea berdintasunezko kultura sustatzeko, genero-estereotipoak baztertuz, tratu onak sustatuz eta hurrek eta gizonak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatuz.</p>	<p>Garrantzitsua da konfinamendugaraietan etxeetan gertatzen ari denari arreta jartzea, eta familiak elkarrekin igarotzen ari diren denbora guztia aprobetxatzea berdintasunezko kultura eta tratu onak sustatzeko eta etxe askotan nagusi diren genero-estereotipoak eta -rolak desagerrarazteko.</p> <p>Konfinamenduak jende asko eramandu —batez ere gizonak— etxe bat kudeatzeak eta mendeko pertsonak eta gaixoak zaintzeak dakarren lan guztiaz jabetzera. Aukera paregabea da hori, orain eta etorkizunean, etxeko lanak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Emakunderen Gizonduz programaren barruan, "Koronabirus garaian, zaintza +, egin dezagun dagokiguna" etxeko eta zaintzako lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzeko kanpaina abian jarri da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskolan eta familietan berdintasuna sustatzeko Nahiko programa egokitu da, konfinamenduan zehar funtzionatzen jarrai dezan. - Gizonduz programaren online prestakuntza indartu da, gizonak zaintzan eta berdintasunean eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka gehiago inplika daitezten sustatzeko. - Etxean erantzukidetasuna sustatzeko ikus-entzunezko gida grafikoak sortu dira, ikasleen gurasoen elkarrean federazioen bidez zabaltzeko. - Emakumeen eta Gizonen

	<p>eta zaintza-lanak gizonen eta emakumeen artean berdintasunez banatzea sustatzeko, eta hurrek eta gizonak dagokien zatia bete dezaten sustatzeko, horrela, emakumeek duten zama neurrigabe hori arintzeko.</p>		<p>Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen sarearen bidez (Bai Sarea), zaintzari buruzko berdintasun-esperientziak biltzea sustatu da, beste erakunde batzuentzat erreferente eta inspirazio izan daitezkeenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bai Sarea bultzatzeko eta koordinatzeko lana indartu da, online lan-saioen bidez (laburrak, ahalik eta gutxien eta ordutegi egokituan), beste erakunde batzuentzat erreferente eta inspirazio izan daitezkeenak. - Bai Sarea bultzatzeko eta koordinatzeko lana indartu da, online lan-saioen bidez (laburrak, ahalik eta gutxien eta ordutegi egokituan), telelana ez ezik zaintza-ardurak dituzten pertsonen parte-hartzea errazteko. - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Sailarteko Talde Teknikoaren esparruan, sailek COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena egingo da, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.
<p>13. Emakumeen eta gizonen presentzia eta parte-hartze orekatua eta genero-ikuspegia bermatzea erabakiak hartzeko</p>	<p>Emakumeek eta gizonak modu orekatuan parte hartu behar dute erabakiak hartzeko guzietan COVID-19aren aurrean</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzak ari da COVID-19aren aurkako esku-hartzea zuzentzen. Ordezkaritza orekatua da sexuaren arabera (7 emakume 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraipena egingo da, COVID-19arekin lotutako erabakiak hartzeko eremuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua

<p>eremuetan.</p>	<p>erantzuteko eta berreskuratzeko ekimenei dagokienez, toki-, foru- edo autonomia-mailan. Begiraden aniztasunak emaitza hobekak ekarriko ditu eta azken erabakia aberastuko du. Gainera, emakumeen eta feministen erakundeak kontuan hartu behar dira, eta haien gaitasunak baliatu.</p>	<p>eta 5 gizon), eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza ere badu. Gainera, egoera horretan giltzarri diren Jaurlaritzako sailek emakumeak dituzte buru, hala nola Osasuna, Segurtasuna, Enplegua eta Gizarte Gaiak, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak eta Lana eta Justizia.</p>	<p>izaten jarraitzen duela bermatzeko.</p>
<p>14. COVID-19aren aurrean berdintasun-politiken eta -erakundeen maila anitzeko erantzun koordinatua bermatzea.</p>	<p>Euskal Administrazio publikoaren hiru mailetako (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak) berdintasunerako politikak, programak, organismoak eta organoak testuinguru berrira egokitu behar dira, eta erakundeen arteko erantzun koordinatua eman behar dute, COVID-19aren ondorioz hartzen diren neurriek epe labur, ertain eta luzean emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa izan dezaten.</p>	<p>- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren esparruan, erantzun instituzional bat koordinatu da, COVID-19aren ondorioz sortutako errealitate berrira egokitua. Hori guztia Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan gauzatu da. Batzorde horretan Emakunde da buru, eta arlo horretan inplikaturako erakunde guztiek parte hartzen dute.</p>	<p>- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailarteko eta erakundearteko batzordeetan eta horien talde teknikoetan zabalitzen dira Emakundek egindako gomendioak, COVID-19aren aurreko erantzunean genero-ikuspegia txertatzeko.</p>
<p>15. Etxe barruan eta kanpoan egiten diren etxeko eta zaintzako lanak sozialki eta ekonomikoki aitortzeko neurriak hartzea, erdigunean bizitzaren zaintza eta iraunkortasuna jarriko dituen eredu ekonomiko eta sozial baterantz eraldatzen laguntzeko.</p>	<p>COVID-19aren krisiak agerian utzi du pertsonen zaintzari eta laguntzari buruzko lanak ezinbestekoak direla bizitza mantentzeko. Pertsonen zaintza politika guztien erdigunean jartzeko paradigma-aldaketa hori sendotu egin behar da etorkizunean, horren arabera baita gure espeziearen eta munduaren iraunkortasuna</p>	<p>- Emakunderen Gizonduz programaren barruan, "Koronabirus garaian, zaintza +, egin dezagun dagokiguna" kanpaina abian jarri da. Kanpainaren helburua da gizonak etxeko lanetan eta gizartearen zaintzak duen garrantziaz oharraraztea, baina konfinamendu-testuinguru honetara mugatu gabe; hots, inplikazio hori harago hedatzea eta etorkizunean sendotzea da helburua, gizarte aske, justu eta berdinzaleagoa lor dezagun.</p>	<p>- COVID-19ari eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko hitzaldi eta topaketa birtualen ziklo bat jarri da abian, "Garbira pasatzeko oharrak" izenekoa, hainbat eragileren proposamenak eta hainbat gairi buruzkoak biltzeko, genero-ikuspegiarekin berreraikitze soziala eta ekonomikoa ahalbidetzeko eta bizitzaren zaintza eta jasangarritasuna erdigunean</p>

		<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko ekoizpen bat sortu da, COVID-19aren aurkako borrokan lehen lerroan egon diren eragile (ekonomiko, sozial, etab.) eta pertsonen (gehienak emakumeak) inplikazioa aitortzeko, bai eta hainbat baliabide grafiko ere, sare sozialen bidez zabaltzeko. 	<p>ezartzeko. Honako gai hauek jorratu dira COVID-19aren testuinguruan: emakumeen aurkako indarkeria, pandemiak emakumeen osasunean duen eragina, mugimendu feministaren proposamenak eta berdintasuna jardura ekonomikoan.</p>
<p>16. Erakundeek COVID-19ari ematen dioten erantzunean genero-ikuspegia txertatzea erraztuko duten espazioak, tresnak eta metodologiak sortzea.</p>	<p>Krisian esku hartzeko testuinguru horretan, beharrezkoa da erabakiak hartu behar dituenak eta gauzatu behar dituenak izatea bere zereginetan genero-ikuspegia txertatzea erraztuko dioten espazioak, tresnak eta metodologiak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gomendio propioak egin ditu COVID-19aren aurreko erantzunean genero-ikuspegia txertatzeko. - "COVID-19a eta emakumeen eta gizonen berdintasuna" gaiari buruzko webgune espezifiko bat sortu da, Europako eta nazioarteko erakundeen gomendioak eta baliabide propioak biltzeko. - Europako eskualde-mailako jardunbide egokien bilduma bat egin da COVID-19ari aurre egiteko, Emakundek eta Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzak koordinatzen duten Genero Lantaldearen esparruan (Europako Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzian sortutako lantaldea). 	<ul style="list-style-type: none"> - COVID-19ri eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko webgunea eguneratu eta osatu da - Egiatzen-zerrenda bat sortu eta zabaltzen da (check-list), COVID-19ren aurrean hartuko diren neurriek genero-ikuspegia txerta dezaten. - COVID-19ari aurre egiteko, Europako eskualde-mailako jardunbide egokiak hautatu eta zabaldu dira Emakundek eta Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzak koordinatzen duten Genero Lantaldearen esparruan (Europako Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzian sortutako lantaldea). - Akordio bat hitzartu da Gizarte Elkarriketarako Mahaiko Berdintasun Taldearen esparruan, eta, besteak beste, Mahaia osatzen duten lantaldeei dei egin zaie genero-ikuspegia eta intersektionala txerta ditzaten hartzen dituzten jardura eta neurri guztietan.

17.COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriek emakume eta gizonengan duten eraginaren jarraipena egitea, bereziki, norbanako eta pertsona-talde zaugarrienei erreparatuta.

Funtsezkoa da COVID-19aren harira abian jartzen ari diren neurriek emakumeengan eta gizonengan duten eragina ezagutzea, berdintasunean izan ditzaketen ondorio negatiboak saihesteko eta positiboak indartzeko.

- "Euskadiko biztanleria, COVID-19aren aurrean" izeneko lehen azterlana egin da, sexuaren arabera bereizitako datuekin.

- COVID-19ari eta emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostena egin da.
- COVID-19a BGA Eetan izaten ari den sexuaren araberrako eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiten hasi da.
- Abian jarri da prozesu bat funtsezko adierazleak identifikatzeko eta informazioa biltzeko, COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriek emakume eta gizonengan duten eraginaren jarraipen orokorra egiteko, sail bakoitzak dagokion arlo sektorialean egin behar duenari kalterik egin gabe.
- Euskal hedabideen egoera COVID-19aren ondorioz ikerketa egingo da eta horretan genero ikuspegia txertatuko da.
- Euskalgintzaren egoera COVID-19aren ondorioz ikerketa burutuko da eta horretan genero ikuspegia txertatuko da.
- Sektore Kulturalean berdintasunaren inguruko hausnarketa txostenak egingo dira eta kultura politikak neurtzeko sistemak diseinatu eta ezarriko dira.
- Euskal gizartearen COVID-19aren aurkako egoeraren balorazioari buruzko Euskal Soziometroa egingo da, non genero-arloko

informazioa bilduko den.

- Herritarrei zuzendutako minisitea sortuko da, COVID-19ari buruzko infografiekin, pandemiaren bilakaera eta datu interesgarriak sexuaren arabera bereizita aurkezteko.